

# Balentriak eta gezurrak

**E**TA nola jakin daiteke igo duen ala ez? Galdetzen dute batzutan mendizaleak ez direnek, prentsa zentzionalistan mendi-istripuei buruzko berriak irritsuki jarraitzen dituztenek, mendizalea gailurrera bakarrik ailegatzan deneko igoerak batez ere aipatzen dituztelarik.

Normalean gai hau atera ere ez da egiten, ez bait da ezer frogatu behar izaten. Logikazko gaia da, progresiozkoa, koherentziakoa. Gai den alpinista bat (esperientziaduna eta sasoiari aurkitzen dena) leku egokian badago, momentu aproposan,.... gailurrera ailegatu dela baieztatzen badu, onartu egiten da eta zorionak ematen zaizkio.

Baina batzutan arazoak izaten dira, beti egon bait da jendemodu polemikoa. Francoren denboretan, bere mendi-balentriengatik ez baizik eta montatzen zituen "marroiengatik" (hauetariko bat zoritxarrekoa suertatu zelarik, gainera) eta "marroi" horietatik ateratzeko erabiltzen zituen gezurrengatik ospetsu bihurtu zen mendizale harena da adibiderik argiena.

Zalantzak sortu eta erkidego "zientifiko" mendizaleak sinetsi ez dituen kasu historiko entzunak daude: Cesare Maestriena kasu, zalantzapean jarria izan ondoren, sekula frogatu ezin izan zuena Cerro Torrearen lehen aldia igo izana; 1976.eko britainiar armadaren espedizioarena, zeinaren gainean Everesteko gailurrera taldean ailegatu zirela kontatzen engainu kolektiboa egin nahi izan zutela uste bait da; Tomo Cesen eslobeniarrarena, "XXI. mendeko eskalada" kontsideratzen den Lhotseko hego-arpegia 1990. urtean bakarrik burutu zuela zin egitean gezurra esan zuela baieztatzen zena; edo

Benoit Chamoux frantsearena, zeinari ez bait zaio sinesten Makalu igo zuenik, eta ez Broad Peak ere, eta ez Cho Oyu ere,...

Ezagutzen diren kasu hauen existentziak eraman du Kartajanari hurrengo honetaz konbentziturik zegoela esatera: bere zortzimilakodunen zerrrendak tranpatiren 10%-ekin handiturik daudela.... baina, hala ere, orotariko kopuruak zuzen daudela, hauek konpentsatu egiten bait dira "isilpekoren" beste 10%-ekin, hau da, gailurretarabaimenik gabe igo dutela esan ezin duten himalaiazalerekin.

Asuntua aldatu egin da azken urteotan. Indar bi daude kontrako norabidean tiratzen dutenak: alde batetik, gaur egun askoz gehiago jakiten da. Telekomunikabideetan gertatu diren aurrerapenek erraztu egin dute errealtatearen berehalako ezagumendundua, eta batzutan berriak bizi-bizian heltzen dira ere eta mundu osora hedatzen dira. (Argazkiak, lehen erabateko frogak kontsideratu zitezkeenak, gaur egun diskutigarriak dira). Beste aldetik, gezurra esateko tentaldiak handiagoak dira: esponsorizazioaren presioak behartu egiten du arrakastarik izan dela eustera. Garaipena nahitaezkoa da.

Batzutan polemikak sortzen dira, normalean tokian tokiko mailara mugatzen direnak, kideen arteko inbidiak edo auzokoen arteko burrukaldiak kontsideratu daitezkeenak. Baina editorialea zabaltzeko erabili dudana galderarentzako erantzuna argia da. Ez dago erakunde benetakotzailerik eta ez erregistro ofizialik ere. Mendi handietan ez dago postontzirik (eta gure postontziak ez daude horretarako ipinita). Hasieran, mendizalearen hitza onartu egiten da. Suposatzen da denborak berak agerteraziko duela egia.

# Hazañas y mentiras

**I** Y cómo se sabe que es verdad que ha subido? Preguntan a veces los no montañeros, los ávidos seguidores de las noticias de accidentes de montaña en la prensa escandalosa.

Normalmente si se plantea la cuestión, porque no hace falta demostrar nada. Es un tema de lógica, de progresión, de coherencia. Cuando un alpinista capacitado (con experiencia y en un momento de forma aceptable) está en el sitio adecuado en el momento oportuno... Si afirma que ha hecho cumbre se acepta y se le felicita y no siempre.

Pero a veces hay problemas ha habido gente polémica. El ejemplo más conocido era aquel alpinista que se hizo famoso en tiempos de Franco, más que por sus hazañas montaÑeras, por los "marrones" que montaba (alguno resultó fatal) y por las mentiras con las que se escabullía de ellos.

Hay casos históricos célebres que deportaron la duda y que la comunidad científica montaÑera acabó por no creerles: Cesare Maestri, que nunca consiguió demostrar que había subido la primera vez al Cerro Torre; la expedición del Ejército británico en 1976 que se considera que intentaron hacer un engaño colectivo contando que habían llegado en grupo a la cima del Everest. El esloveno Tomo Cesen, al que se demostró que había mentado defendiendo que había hecho en solitario en 1990 la cara S del Lhotse, "la escalada del siglo XXI": o el francés Benoit Chamoux, al que ya no se le cree que hizo el Makalu, ni el Broad Peak, ni el Cho Oyu...

La existencia de estos casos conocidos llevaba a decir a Kartajanari que estaba convencido de que en sus listas de ochomilistas estaban infladas con un 10% de tramposos... pero que las cifras totales son cabales porque se comprenden con otro 10% de "furtivos", que no pueden decir que han ascendido a cumbres sin permiso.

Incluso a veces cabe la explicación de que en el Himalaya, a mucha altitud, la falta de oxígeno haga que la gentes no coordine bien, y vea visiones y acabe creyéndose situaciones irreales fruto de su imaginación. Hoy en día se han complicado las cosas. Hay dos fuerzas que tiran en sentido opuesto: por una parte, los avances de las telecomunicaciones facilitan el conocimiento inmediato de la realidad: las noticias llegan en vivo y se transmiten a todo el mundo. Por otra parte, son mayores las tentaciones para mentir: la presión de la esponsorización obliga a sostener que ha habido éxito. Hay que triunfar a la fuerza.

A veces surgen los escándalos, normalmente reducidos a un nivel local, que pueden catalogar como envidias de colegas o riñas de vecinos. Pero la respuesta a la pregunta con que abría el editorial es clara. No hay una institución acreditadora ni un registro oficial de ascensiones. En los grandes montes no hay buzones (y nuestros buzones tampoco están puestos para eso). En principio se acepta la palabra del alpinista. Se supone que el tiempo acaba por descubrir la verdad.

Txomin Uriarte